

LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO LINFEDEMAK PAIRATZEN DITUZTENEN ELKARTEEN MANIFESTUA LINFEDEMA EGUNEAN

Espainiako Estatuko erkidego guztietan Linfedemak pairatzen dituzten pertsonak daude, eta gure esperientzia abiapuntu, jakin badakigu batzuk diagnostikatu gabe daudela edo eritasuna berandu diagnostikatuko dietela. Bestalde, askok ez dute gaixotasunari buruzko informazio zuzena jasotzen, itxarote-zerrenda luzeak jasan behar dituzte edo arazoak dituzte tratamendu intentsiboak eta iraunkorrak jasotzeko. Halaber, eri askok behartuta ikusten dute bere burua laguntza medikoa euren kabuz ordaintzera. Aurreko guztiak direla eta:

- 1) Defendatzen dugu, Konstituzioan jasotzen den bezala, guztientzako sarbidea duen eta doakoa den Osasun Publikoa. Gure helburua da kalitatezko asistentzia izatea zerbitzuetako erabiltzaile zuzenak garen aldetik.
- 2) Adierazi nahi dugu beharrezkoa dela lurralde kohesioa Osasun Publikoak emandako zerbitzuetan eta tratamenduetan: inor baztertu edo kanpoan utzi gabe egoitza arrazoiak direla medio, eta kontuan hartuz diagnosi metodoak eta kalitatezko tratamenduak, baita irten berriak ere.
- 3) Proposatzen nahi dugu Linfedema **unitateak ezartzea ospitaletan**. Zerbitzu horiek talde multidisziplinarioak izan behar dituzte, gai izango direnak, bestalde, arreta integrala eskaintzeko osasun publikoko arlo mediku eta psikosozial guztietan.
- 4) Gure ustez ezinbestekoa da jakitea lehen eta bigarren mailako Linfedemen **prebalentzia eta intzidentzia**. Horrela, behar diren baliabideak erabiliko dira gaixotasun hau tratatzeko. Halaber, ikerketa epidemiologikoa sustatu nahi dugu, Linfedema pairatzen duten pertsonen datu fidagarriak lortze aldera.
- 5) Sustatu eta lagundu behar dira Linfedemari, Lipedemari eta Flebedemari buruzko ikerketak, baita tratamenduak ere, eta Osasun Plan Nazionalan jaso behar dira.
- 6) Eskatzen dugu aztertzeko gaur egun tratamendu moduan erabiltzen diren praktika batzuk; izan ere, arriskutsuak izan daitezke edo eriaeren osasuna gaiztotu ahal dute, horien artean aipatu daitezke botika jakin batzuk agintzea bereizkuntzarik gabe edo presoterapia sistemak txarto erabiltzea.
- 7) Gure ustez adina ezin da irizpide izan balorazioetatik baztertzeko edo eritasuna tratatzeko unean; izan ere, patologia kronikoa da eta adinaren edozein arotan ager daiteke.
- 8) Eskatzen dugu Linfedema, Lipedema eta Flebedema antzemateko programa goiztiarrak ezartzeko. Horrela, osasun arloko profesionalak bideratu ditzakete eragindako pertsonak dagozkien zerbitzuetara: Angiologia eta hodietako kirurgia, Barne medikuntza, Dermatologia, Medikuntza fisikoaren eta errehabilitazioaren zerbitzua.

- 9) Eskatzen dugu Osasun Sistema Publikoak finantzatzeko eri bakoitzarentzat egokia den mantentzeko terapia, gaur egun eri bakoitza ordaintzen ari dena.
- 10) Gure ustez beharrezkoa da Osasun sailek euren zerbitzu-zerrendetan sartzea eri bakoitzarentzat egokiak diren jantzi ortopedikoak.
- 11) Eskatzen dugu kontuan hartzeko Linfedemak eragiten dituen mugak lanerako ezintasuna edo ezintasuna mailak baloratzen direnean.
- 12) Osasun erakundeentzako solaskide egokia izan nahi dugu eriak defendatzeko. Horretarako informazio, koordinazio eta lankidetzaren erlazioak ezarri nahi ditugu beratako eta nazioarteko erakundeekin, baita elkarte kideekin ere.